

2021ean omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Lourdes Oñederra irakasle eta euskaltzain osoak jaso du aurtengo Ortzadar saria

Lourdes Oñederra irakasle eta euskaltzain osoak jaso du 2021 urteko Ortzadar saria. Golardoarekin, Noticias Taldeak "urteetan euskal literatura eta kulturaren alde eginiko lan eskerga" aitortu nahi izan dio hizkuntzalari donostiarrari.

Miren Agur Meabek 2021eko Espainiako Poesia Saria irabazi du

Espainiako Poesia Saria osatzen zuen epaimahaikoen artean, Euskaltzaindiak izendatutako Katixa Agirre idazlea zegoen, honako hauekin batera: Juan Gil Fernández, María del Vinyet, Francisco Javier Díez de Revenga, Eduardo Moga Baiona, Julia Barella Vigal, Luis Fermín Moreno Álvarez, Esther Sánchez-Pardo González, Elena Medel Navarro eta Olga Novo.

Liber Saria eman diote Bernardo Atxagari.

Bernardo Atxagak irabazi du Liber 2021 literatur saria. Espainiako editoreen gremioen federazioak (FGEE) ematen duen saria da eta aurtengoan Atxagarentzat izan da. Epaimahaiak idazlearen ibilbide literarioa nabarmendu nahi izan du, euskarari zein gaztelaniari ikusgarritasuna eman diona, kritikaren eta irakurleen harrera be-roarekin, eta genero literario guztiak sendotzeko ahalegina eginez.